



■ ASTIGARRAGA-HERNANI UDALA

Gai garrantzitsuekin, urriko Plenoak gaur

Gaur egingo dute ohiko Plenoa, Hernanin zein Astigarragan, arratsaldeko 19:00etan hasita. 2020ko udal aurrekontuari buruz ariko dira, besteak beste, astigarraren kasuan.

OHIKO deialdian, hileko azkeneko asteartean, egingo dute gaur urriko Plenoa, Hernanin zein Astigarragan. Arratsaldeko 19:00etan izango dira biak, eta gai garrantzitsuak daukate lantzeko, gai-zerrenda potoloetan. Astigarragan, 2020ko udal aurrekontuari buruz ariko dira, besteak beste; eta Hernanin, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana daukate, eztabaidarako gaien artean. /4

■ HERNANI

'Baietz Hernanik!' liburua aurkezteko zita, gaur

Baietz Hernanik! erronkaren harira, liburua idatzi du Amagoia Mujika Telleriak; eta gaur egingo dute aurkezpen irekia, 19:00etan Biterin. Bertaratuek, ale bana jasoko dute, doan. /5

■ ARANO-GOIZUETA

Berrerabiltzeko tailerra etzi, Maisuenean

Dakienak ez dakienari erakutsi egitasmoaren barruan, bigarren tailerra egingen dute etzi, Aranoko Maisuenean, berrerabiltzeari buruzkoa. Goizuetan, azaroaren 8an egingen dute tailer bera. /4

■ KIROLAK

Garaipen handia, boleiboleko mutilek

Bigarren partidua besterik ez, eta Euskadiko txapeldunordea menderatu du asteburuan, Hernaniko mutil seniorren boleibol taldeak, partidua iraulita. /7

Iker Salaberriak debuta, ostiralean

Ostiral honetan egingo du debuta profesionalean, Iker Salaberria goizuetarrak. Tolosako Beotibarren jokatu du, Rezustarekin, Elezkanon II eta Bikuñaren kontra. /8

GAUR KRONIKAN

Hernani /2-5

Liburutegia, odol emaileak, Kaxko elkartea, Gaztelekua...

Astigarraga /4

Arano /4

Goizueta /4

Kirolak /6-8

Pelota, futbola, eskubaloia, mendi lasterketak...

Erlojurik gabe, eta ezin gelditu

«Erretiroa hartu nuenetik, ezinezkoa da ni etxean harrapatzea», onartu du Pili Lujanbiok. Omenaldia egingo diote bihar, afari baten bueltan. /2-3



Latxe
Urumeako ur-ttikitan barrena

13. alea
kalean!

latxe@kronika.eus 943 33 08 99

Adarraga
Konfitegia
Pasteldegia

Urbietan Etorbidea 7
☎ 943 55 09 10

FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA

Asegururik ba al duzu?
Deitu Orbegozora

24 orduko tlfnoa.
943 33 10 20
www.funerariaorbegozo.com

Zentrala - Latsunbe 7, Hernani

■ HERNANI PILI LUJANBIO

«Ordulari gabe bizitzea izugarrizko luxua da»

Abuztuan hartu zuen erretiroa Pili Lujanbiok eta ordutik adierazi du hamaika tailerretan eman duela izena, etxean geratzeko astia izango baitu aurrerago.

BERROGEITA hamar urte lanean igaro ondoren, abenduan hartu zuen erretiroa Oindi tabernako Pili Lujanbiok, eta bihar egingo diote agurra, Berriak elkarteak antolatutako omenaldi afarian.

Hamahiru urterekin hasi zen lanean Lujanbio bere izebarenean, Loiolako Txomine-nekin okindegian, ezkondu zen arte, eta ordutik ez dio inoiz lan egiteari utzi. «Izebak hanka hautsi zuen eta harengana eramanean ninduten okindegiko lanekin laguntzeko. Izebarekin asko ikasi nuen, denetik saltzen genuen; babarrunak, dilistak eta abar. Garai hartan dena soltean saltzen zenez, paperezko poltsatxoak egiten eta pisura neurtzen ikasi nuen, oraindik ez zen plastikozko poltsarik», kontatu du.

Oindiko sukaldean, 26 urtez Oindi taberna 1992an hartu zutela azaldu du Lujanbiok, senarra eta ahizpa lanik gabe geratu zirenean: «36 urterekin hasi nintzen tabernan lanean. Senarra eta ahizpa langabezia geratu zirenean bi senar-emazteak taberna hartzea erabaki genuen, lanbidearen inguruan ideiarik izan gabe. Hasiera gogorra izan zen, noski, aurrera ateratzeko bi alaba genituen eta ez genekien oso ondo nondik hasi».

Mostradorean lan egitetik, sukaldean lan egitera igaro zen Lujanbio tabernarekin hasi zirenean. Ahizpa eta biak sukaldean aritzen zirela azaldu du, gizonak barraz arduratzen ziren bitartean: «tabernako sukaldean igaro ditut nik ordu gehien, nire ahizparekin batera. Gizonak egoten ziren barran, baina nahiz eta gu sukaldean aritu, beti ginen jendartean».

Dedikazio haundiko ogibidea Tabernako lana dedikazio haundiko ogibidea dela adierazi du Lujanbiok: «Oso jai egun gutxi daude, eta ordu asko dira zutik igaro beharrekoak. Taberna batek, okindegiek bezala, dedikazio haundia eskatzen du eta horrek guztiak denbora asko

«Tabernara etortzen zen jendea asko botako dut faltan, baina deskantsua hartzeko garaia banuela uste dut»

eskatzen du. Denek jai dutenean, zu lanean zaude eta ordutegia ez da batere ona».

Alabak txikiak zirela hasi ziren tabernan, eta haiek zaintzeko denborarik ia ez zuela kontatu du: «Ez nuen haurrekin egoteko denborarik, eta ni lanean nengoen bitartean alabek norbait arduratu zedin zaintzaile bat hartu beharrean, tabernan aritzeko langile bat hartzea erabaki genuen, nik arduratu nahi nuelako nire alaben heziketaz».

Gero, gurasoak helduak zirenean haiek zaintzeko bi ahizpak ondo moldatu zirela kontatu du: «Ahizpa eta biok txandaka aritzen ginen, bata lanean zenean bestea gurasoenean zegoen eta alderantziz. Tabernak malgutasun hori ere eman digu, eta oso harro nago nire gurasoak horren goxo tratatzeko aukera izan genuelako, hori ere eman digu tabernak»

Mila momentu, hamaika istorio

Pili Lujanbiok tabernako lanaz asko disfrutatutako duela kontatu du, lanera beti oso gustura joan dela.

Ogibidetik gehien gustatzen zaiona jendearekin sortzen diren harremanak dela azaldu du, eta horrekin geratzen dela: «Loiolako okindegian hasi nintzen egunetik asko gustatu zait mostradore atzean lan egitea, beti gustatu izan zait publikoaren aurrean egotea. Egia da ez dudala besterik eza gutu baina gogoko izan dut pertsonekin tratatzea, jendearekin harremanak eta tabernak horretarako izugarrizko aukera eman dit», adierazi du.

Kanpora bidaiatzeko astirik



Oindi Tabernako sukaldean 26 urtez aritu ondoren hartu du erretiroa Pili Lujanbiok.

«Tabernako lana gogorra da, baina oso gauza onak eman dizkit»

izan ez duen arren, tabernatik ere asko ikasi duela argitu du Lujanbiok: «Etorkin askorekin erlazionatu naiz tabernan, baita baserritar askorekin ere eta bakoitzak bere batailak kontatu dizkit. Psikologo lana egiten duzu batzuetan, eta beste errealitate batzuk ikusten dituzu. Momentu batzuetan pazientzia handia behar den arren, oso gustuko dut entzutea eta partekatzea».

Agur gazi-gozoa

Erretiratzeko erabakia hartzea kosta egin zaiola adierazi du Lujanbiok, eta alabek zerikusit haundia izan dutela horretan ere azaldu du: «Denek esaten zidaten disfrutatzeko garaia nuela, urte asko neramatzala lanean eta merezi nuela. Alabak izan dira erretiratzeko erabakia hartzea animatu nautenak. Behin erabakia hartuta, denak asko poztu dira eta zorion mezu asko jaso ditut.»

Pena handia ematen dio Lujanbiori, bezeroekin zuen harreman estu hori mantentzen ezin jarraitzea baina hartutako erabakiarekin oso gustura dagoela adierazi du:

«badakit tabernara etortzen zen jendea asko botako dudala faltan, baina deskantsua hartzeko garaia banuela uste dut, eta alabek arrazoi zuten. Gainera, Oindi tabernak berdina izaten jarraituko duela argitu nahi dut, dagoeneko ni ez nago sukaldean baina familiak jarraitzen du tabernarekin; ahizpak, koinatuak eta ilobak Oindin jarraitzen dute».

Eta argazkiekin orain, zer?

«Erretiroa hartu dudantetik herriarrek bi galdera nabarmen egin dizkirate: Pili, nork jarriko ditu orain tabernan argazkiak? eta zer gertatuko da zuk jartzen zenituen apaingarri guzti horiekin?», kontatu du Lujanbiok barre artea.

Urteko garaia arabera, taberna modu batera edo bestera apaintzeaz arduratu izan da beti Pili Lujanbio, eta batenbategi noizbait Oindi 'Biteri txikia' zela ere esan izan diotela kontatu du: «Perretxiku garaia zenean, taberna gai horren inguruan apaintzen saiatzen nintzen, eta inauterietan ere berdina egiten nuen. Argazkiak jarri izan ditut tabernako partean, album moduko bat sortuz. Lan haundia du horrek, hara eta hona joan behar izan dudalako argazkiak lortzeko baina gustu handiarekin egin dut beti, eta hori ere, azken finean, bada bezeroak goxo tratatzeko beste modu bat. Herritarrei ilusio haundia egi-

ten ziren tabernara sartu eta irudi zaharrak edo ez horren zaharrak ikustea. Beti zegoen batenbat bere burua argazki horietan topatzen saiatzen zena, edo argazkiaren kopia bat eskatzen zuena»

«Saltsa guztietako perrexila dirudit»

Tabernako sukaldetik atera eta agenda betetzeari ekin dio Lujanbiok, hasierako momentutik. Oso lanpetua dabil, gimnasia egiten hasi dela azaldu du, eta euskaltegian dabilela gramatika hobetzeko helburuarekin, mindfulness eta musikaterapia bezalako hainbat tailerretan baita ere eman du izena eta duela bi aste pensionistekin izan zen Madrilen.

«Hainbeste urtez lanean aritu ondoren, orain ez dut sinisten horrenbeste denbora izatea niretzat, baina aprobetxatzen ari naiz. Betidanik izan naiz oso saltsera, eta orain ere saltsa guztietako perrexila dirudit. Lotsa ematen didan arren, asko gustatzen zait herriko ekimenetan parte hartzea, eta osasunez primeran nagoenez aprobetxatu egin behar dut, ez baitakigu hementik urtebatzuetara non eta nola egongo garen», kontatu du Lujanbiok.

Ordularirik gabe bizitzea «izugarrizko luxua» dela ere esan du, eta erretiroa hartu zuenetik ezinezkoa dela bera etxean harrapatzea. ■



13 urterekin hasi zen lanean izebaren Txominenea okindegian, Loiolan.



Taberman bizitako istorio guztiak gogoratu ditu Lujanbiok.

Herritarrei eskerrak, bihotz-bihotzez

Taberman jasotako berotasuna eskertu nahi izan Pili Lujanbiok: «26 urte hauetan oso gustura egon naiz lanean taberman, asko disfrutatuta dut eta hori zati handi batean herritarrei zor diet. Bezeroei esker atera gara aurrera, eta haiei esker gaude orain gauden lekuan, bai bezero bezala tabernara etorri izanagatik eta baita pertsona bezala eman didaten maitasun guztiagatik. Oroitzapen oso politekin agurtu dut taberna, eta horietako nagusia herritarrekin sortu ditudan harremana da. Balio handiko laguntasunak eman dizkirate bezeroek, eta hori beti izango dut gogoan. Biharko afaria posible egin dutenei eta bertaratuko direnei ere eskerrak ematea gustatuko litzaidake. Badakit barrutik ateratzen zaielako egiten dutela eta horrek hunkitzen nau gehien, berotasun eta goxotasun hori jaso dudalako. Gogo handia dut afarirako, gure artean ez dauden pertsona askotaz oroituko naiz eta oso polita izango da seguru, hunkigarria. Bestalde, herritarren partetik hitz onak beste-rik ez ditut entzun beti, eta hori eskertzekoa da hortaz, lerro hauek aprobetxatu nahiko nituzke nire eskerrik beroenak emateko. Urte guzti hauetan gurera hurbildu diren guztiei mila esker, bihotz-bihotzez», azaldu du.



Erretiroa hartu duenetik gelditu gabe dabilela ere kontatu du.

HERNANI UDAL LIBURUTEGIA

‘Zigorgabeko loria’ komikiari buruz gaur, Josean Olaberekin

Solasaldia egingo dute, 20:00etan, egilea bertan dela.

SEGIDA izango dute gaur, komikiei buruzko solasaldiek, Hernaniko udal liburutegian. Eta oraingoan, Josean Olaberen *Zigorgabeko loria* komikiari buruz ariko dira. Iluntzeko 20:00etan hasita, Alai Zubimendik gidatuko du saioa, eta bertan izango da komikiaren egilea bera ere.

Gipuzkoako historiaren zati bat eraman du komikira, Olabek. 1813ko Donostian dago kokatuta. Bukatzeaz da Napoleonen okupazioaren ga-



‘Zigorgabeko loria’ komikiaren irudietako bat.

raia penintsulan: gerrilak eta armada espainiarrak, indar britainiarrek eta portugaldarrek lagunduta, atzera dara-

makite Joseph Bonaparteren gobernua, mugarantz. Han dago zain Donostia, han dago zain loria... ||

HERNANI ODOL EMAILEAK



Diploma jaso zuten odol emaleetako batzuk, igandean, Urnietako Oianume jatetxean.

Odola emateko fideltasunari esker ona, 22 hernaniarri

Urtero bezala, Oianume jatetxean egin zuten bazkaria, odol emaleek; eta diploma bana jaso zuten, estrakzio gehienekoek.

BAZKARI baten bueltan esker-tu zieten odol emaleei, beste urte batez, erakutsitako fideltasuna. Urnietako Oianume jatetxean egin zuen festa, Gipuzkoako Odol Emaleen Elkarteak Ori Beheko Ordezkaritzak, Hernanikoek tartean; eta ohi bezala, omendu zituzten estrakzio kopuru handiak pilatu dituztenak, dagoeneko. Horrela, diploma jaso

zuten 22 hernaniarrek.

25 estrakzio egiteagatik omendu zituzten Pedro Herro, Soraya Iturralde, Cecilio Jauregui, Unai Lacadena, Jose Antonio Ochotorena, M. Resur Olazabal, Begoña Ormazabal eta Iñaki Urretabizkaia; 40 estrakziara iristeagatik, M. Teresa Monge eta M. Josefa OIariaga; 50 odol ematerengatik, Eneko Ayestaran, Jose M.

Bergaretxe, Juan Bergaretxe, Leoncio Lekuona eta Fernando Narvarte; 60ra iristeagatik, Josefa Alcorta, Adelaida De Celis, Asunción Ochotorena, eta Angelines Vera; 75 estrakzio izateagatik, Manuel Irastorza eta Francisco Javier Rodriguez; eta azkenik, 100 odol emateren zifra borobilera iristeagatik, Francisco Javier Ormaechea omendu zuten. ||

■ HERNANI-ASTIGARRAGA UDALA

Gaur egingo dute urriko Plenoa, Hernanin zein Astigarragan

Arratsaldeko 19:00etan izango da, bi herrietan. 2020 urterako udal aurrekontuari buruz ariko dira Astigarragan, besteak beste; eta Berdintasunerako III. Planari buruz, Hernanin.

OHIKO deialdian, gaur egingo dute urriko Plenoa, Hernanin eta Astigarragan. Arratsaldeko 19:00etan izango da bi herrietan, udaletxean; eta gai ugari dauzkate eztabaidatzeko.

2020 urterako udal aurrekontua izango da, Astigarragan, landuko duten gai nagusia. Baina beste hainbat gai garrantzitsu ere badira, gai-zerrendan: 2020-2023 dirulaguntzen plan estrategikoa, Emakumeon Plaza berrurbanizatzeko proiektua, edota Putzuetako ur-depositutik Zarkumendegira eta garrario hirira ur-hornidura egiteko obraren proiektua. Eztabaidatuko dute, baita ere, EH Bilduk eta EAJ-PNVk aurkeztutako mozio bateratua, Kataluniako Procésaren aurkako epaiari buruzkoa. Hamaika puntu dira guztira, galderena barne.

Plenoaren aurretik, gainera, Tokiko Gobernu Batzordeak ere egingo du bilera, Astigarragako udaletxean. 18:00etan izango da hori, eta besteak beste, ariko dira udal brigadarentzako lokala erostean, Energiaren



Mozio bateratua aurkeztuko dute Astigarragako EAJ-PNVk eta EH Bilduk, Kataluniako 'Procés'aren aurkako epaiari buruzkoa.

Udal Planaz, edota Arrobitxulo eta Santio Zeharra arteko elektrizitate eta telekomunikazio lineentzako obra proiektuaz.

Berdintasunerako III. Planari buruz, Hernanin

Gai gehiago dauzkate lantzeko, 14 guztira, Hernanin. Auzo Plaza eta Carmen Adarraga parke publikoen izendapena gauzatu dute; bozkatuko dute atxikitzea Gaztematikari, Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustape-

nerako Erakundearteko Sarea; eta hitz egingo dute Hernaniko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planari buruz.

Tartean izango da, baita ere, Giza Eskubideen Defendatzailen Babesari buruzko adierazpen instituzionala; eta bi mozio: apustu-etxeak ugaritzeari buruzkoa; eta Udal Gobernuak lau urterako gobernu programa aurkezteari buruzkoa, Hernaniko PSE-EEK aurkeztu duena. ■

■ HERNANI KAXKO ELKARTEA

Udazkenarekin batera, gaztainen ordezkatzeko dituzte liburuak

Kaxko elkarteak jakinarazi du, laster hasiko direla berriro gaztainen saltzen, Plaza Berrin dagoen egurrezko postuan.

ORAIN urte batzuk jarri zuten, gaztainen postu tradizionalak ez galtzeko helburuarekin, Plaza Berriko egurrezko etxola. Baina gaztainen saltzeko bakarrik ez, beste zeregin baterako ere baliatu dute txokoa, maiatzetik hona: liburuak eta aldizkariak trukatzeko gunea izan da, Europa mailan zabaldutako Liburuak kalera ekimenarekin bat eginez.

Udaberrirako eta udarako ekimena izan da liburu eta aldizkariena; eta orain, udazkena iristearekin batera, berriro hartuko dute gaztainen, liburu

Udaberrian eta udaran liburuak hartu ondoren, gaztainen eskainiko ditu berriro, laster.

eta aldizkarien tokia. Izan ere, Kaxko elkarteak aurreratu du, laster hasiko direla berriro gaztainen saltzen, postuan.

«Hernaniko bizilagunei jakinarazi nahi diegu, udazkenarekin bueltatuko garela, inprimatutako paperarekin eginda-

ko kukurutxoekin, gaztainen errez beteta; berriro ere zikintzeko eskuak, betiko plazerekin», nabarmendu dute elkartetik.

Hori horrela, bertatik kenduko dituzte liburu eta aldizkariak, oraingoz behintzat. Proba modura jarri zuten martxan Liburuak kalera ekimena, aurtengo udaberrian; baina litekeena da, gaztainen denboraldia bukatu eta berriro udaberrian sartzean, liburu bidaiariak postura bueltatzea, trukaketarako gunean: «zuk irakurtzen duzuna, interesgarria da gainera, koek ere irakurtzeko», diote. ■

■ ARANO-GOIZUETA MANKOMUNITATEA

Berrerabiltze tailer irekia egingen dute etzi, Maisuenean

Arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara izanen da. Goizuetan, azaroaren 8an zita.

TAILER bikoitza antolatu du Mendiak Mankomunitateak eskualdeko herrietan, hondakin gutxiago sortzeari buruz, Dakienak ez dakienari erakutsi izenburupean. Urrian egin zen aurreneko tailerra, eta orain da bigarrenaren txanda: etzi, ostegunean, egingen dute Aranon; eta azaroaren 8an izanen da Goizuetan.

Maisuenean jarri dute hitzordua, aranoarrentzat, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara.

Eta eskolako jangelan izanen da Goizuetako saioa, ordutegi berean.

Tailerra irekia da, eta bertan, landuko dute nola berrerabili, berreskuratu edota zaharberritu, hondakin izateko zorian daukagun zerbait: altzari txikiren bat, kartoizko, kristalezko edo plastikozko zerbait, oihal zatiren bat...

Elkarri lagunduko diote, eta bakoitzak duen jakintza besteekin konpartituko du. ■

■ HERNANI AIRE GARBIA

Bilera gaur arratsaldean, Aire Garbiak

Bilerei segida emango die gaur, Hernaniko Aire Garbia taldeak. Biterin izango da, arratsaldeko 19:00etan hasita. Eta deialdi berezia luzatu diete, beraiekin harremanetan jarri daitezten, noizbait salaketaren bat jarri dutenei, inguruko industria guneei eragindako usainengatik edo arnasketa arazoengatik, Osasun Sailean, Udalean edota bestelako erakunde publikoren batean. ■

■ HERNANI PLAX!

Astebete atzeratuta, bigarren saioa

Bihar zen egitekoa, 17:00etatik 19:00etara Biterin, erditzeen eta seme-alaben ondorengo sexualitatea, elkarbizitza eta erotikari buruzko tailerraren bigarren saioa. Baina taldea osatu duten batzuek joaterik ez dutela eta, adostu dute astebete atzeratzea; eta beraz, azaroaren 6an izango da saioa, ordu eta toki berean. ■

■ ASTIGARRAGA SAGAR UZTA

Argazki Rallyko erakusketa, etzi arte

Zazpigarrenez egin dute aurten, Sagar Uzta jaiaren barruan, Argazki Rallya; eta partehartzaileen argazkiekin, erakusketa jarri dute, kultur etxean. Etzi arte egongo dira ikusgai, lanak. ■

■ HERNANI UDALA

Galarretan gaur, errefusari buruzkoa

Galarretan jarriko dute hondakinei buruzko informazio postua, gaur, Baliabideak batu, ez errefusatu kanpainaren barruan. Egun osoan zehar egongo dira bertan: goizean 10:00etatik 14:00etara, eta arratsaldean 16:00etatik 20:00etara. Bihar, berriz, Portu auzoan jarriko dute; egun osoan zehar egongo da, bertan ere. Hori izango da azkenekoa. ■

■ GOIZUETA 65 URTETIK GORAKOAK

Gaur azkeneko eguna, bazkarirako

65 urtetik gorakoek festa antolatu du Umore Ona elkarteak, asteburu honetan; eta igandean elkartean egingen duten bazkarirako, gaur dute baieztatzeko azkeneko eguna: etxean jaso zuten gonbidapena, bueltan entregatu behar dute, elkartean bertan, edo buzoian utzita. ■

■ HERNANI DOBERA EUSKARA ELKARTEA

‘Baiez Hernanik!’ erronkaren liburua aurkeztuko dute gaur

Ekimenak eman zuenari buruzko liburua idatzi du Amagoia Mujika Telleriak. 19:00etan izango da aurkezpena, Biterin.

URTEBETEKO erronka izan zen *Baiez Hernanik!*, Euskara Ari Du taldeak martxan jarri zuena, herrian euskeraren erabilera indartu eta areagotzeko. Eta erronkak eman zuenaren inguruan, liburua idatzi du Amagoia Mujika Telleriak.

Liburua argitaratu berri du Dobera Euskara Elkarteak, eta aurkezteko, gaur jarri dute zita.

Biterin izango da, arratsaldeko 19:00etan hasita.

Egilea bera izango da aurkezpenean, eta liburuari buruzko azalpenak emango ditu. Bertan egongo dira, baita ere, liburuan azaltzen diren zenbait erronkalari, eta beraien esperientzia kontatuko dute, aurkezpen ekitaldian.

Izan ere, Baiez Hernanik!

ekimenak eman zuenaz gain, erronkan parte hartu zuten hainbat herritarren esperientziak ere bildu ditu Mujikak.

Liburu bana, bertaratuei

Herritar guztiei luzatu diete gonbitea, aurkezpenera gerturatzeko; eta bertaratzen direnek, liburuaren ale bana jasoko dute, doan. ■

■ HERNANI-ASTIGARRAGA XALAPARTA ELKARTEA



Lizeaga, Gaztañaga eta Astiazaran-Iruin sagardotegietako ordezkariak, sariekin, eta Mikel Ruiz, Xalapartako kidea.

Andoaingo Gaztañaga txapeldun Xalapartan, Lizeagaren aurretik

Bigarren sailkatu zen sagardotegi astigartarra, Xalaparta elkarteko lehiaketan. Jendez bete zen elkarte, afarirako.

LARUNBATEAN jokatu zen, afari baten bueltan, Xalaparta elkarteko sagardo lehiaketa, Hernanin. Eta 10 sagardotegiren artean, Andoaingo Gaztañagak jaso zuen sari potoloena.

1.151 punturekin izan zen txapeldun Gaztañaga, eta oso gertu izan zuen Astigarragako Lizeaga, lau puntura bigarren, 1.147rekin. Zubietako Astiazaran-Iruin izan zen hirugarren, 1.129 puntu lortuta.

Elkarteak nabarmendu du,

«maila haundiko sagardoak» dastatu zituztela, «bertaratuen komentarioetatik ondorioztatu daitekeen bezala».

Gerardo Plaza, Joxan Imaz, Iñaki Aginagalde eta ‘Katxola’, omenduta

Edizio borobila zuen sagardo lehiaketak, 25garrena; eta berezia izanik, omendu eta gogoa izan zituzten, lehiaketa sortu zutenak: Gerardo Plaza, Iñaki Aginagalde eta Joxan

Imaz. Eta gogoan izan zuten, baita ere, *Katxola* zena, Zelaia sagardotegiaren ordezkari gisa bertaratzen zena, eta orain gutxi hil zena.

Lehiaketaren afarirako, jendez bete zen Xalaparta elkarte, eta «giro ederrean» egin zuten, Iker Osa eta Iñaki Zelaia bertsolariek lagunduta. Eta nabarmendu dute, sagardoak bakarrik ez, bertaratuek dastatu zuten afaria bera ere «aparta» izan zela. ■

■ HERNANI GAZTELEKUA

Gau Beltzeko zita hirukoitza, gaurtik

Ostegunera bitarte, Gau Beltzarekin lotutako ekintzak izango dira Gaztelekuan. Gaur, maskarak, dekorazioa eta bideoak.

EGUN bereziak izango dira datozenak, Hernaniko Gaztelekuan. Izan ere, gaur hasi eta ostegunera bitarte, zita hirukoitza jarri dute, Gau Beltzari eskainitako ekintzekin.

Ostegunean izango da Gau Beltza edo Halloween gaua, eta horri begira prestatuko dira, gazteak. Gaur arratsaldean, maskarak eta dekorazioa landuko dituzte, eta Gau Beltzeko bideoak ikusi.

Gau Beltzerako prestatzen jarraituko dute, bihar ere. Eta zehazki, egingo dituzte gaierekin girotutako galletak, eta

Mozorro, maskara, makillaje zein galletak prestatuko dituzte, Gau Beltzean girotuta.

prestatuko dituzte mozorroak eta makillajea.

Eta azkenik, ostegunean, Gau Beltzaren egunean, pelikula ikusiko dute, eta *photocalla* jarriko dute, mozorroekin argazkiak ateratzeko. ■

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

JOSEFA SANCHIZ SOTO
- Goian Bego -
Gure maitasunaren indarrak zu bizirik jarraitzea lortzen du.
SANCHIZ ILOBAK
Hernanin, 2019ko urriaren 29an

V. URTEURRENA
IGNACIO MARIA GONZALEZ SANCHO
Gure ondotik joan zara, baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan. Ez zaitugu sekula ahaztuko.
EMAZTEA, ALABA ETA FAMILIA
Hernanin, 2019ko urriaren 29an

IV. URTEURRENA
Xanti Zubeldia Arrieta
Lau urte hauetan eman diguzun indarra, zu oroitzeko beharra.
Badakigu zu zarela gauero argitzen gaituen izarra.
ETXEKOAK
Hernanin, 2019ko urriaren 29an

■ HERNANI IPAR MARTXA



Ipar Martxan parte hartu zuten hiru hernaniarrak.

Sei hernaniarrek podiumera igotzea lortu dute Miramonen

Pasa den larunbatean Ipar Martxako Espainiako Kopako azken froga jokatu zen, eta bertan izan ziren sei hernaniar.

Aurreko larunbatean, Miramongo basoan, Ipar Martxako Espainiako Kopako azken froga ospatu zen. Bertaratu zirenak, Espainiar estatuko martxalari onenak ziren, jokoan bai zegoen Ipar Martxako Espainiako kopako azken sailkapena.

Club Vasco de Camping Elkarteko sei hernaniarrek ez zuten hutsik egin eta denek lortu zuten podiumera igotzea. Beraz aurreko asteburua, borobila izan zen askorentzat.

Espainiako kopako azken sailkapena

Visi Madina, hirugarren gelditu zen, VET-C mailan, Alberto Arenales berriz, txapelketa izan zen, VET-B mailan eta bigarren absolutuan. Azkenik Agustin Urretabizkaia azpi txapelkunaren postua lortu zuen, VET-B maila.

Larunbateko lasterketa, Ipar Martxako Espainiako Kopako azken froga jokatzeaz gain, Gipuzkoako Txapelketa ere egin zen, eta bertan izan

Club Vasco de Camping Elkarteko sei hernaniarrek ez zuten hutsik egin.

zen Marijo Villalba eta Alberto Arenales, biak txapelkunak gainera. Agustin Urretabizkaia bigarren postuan gelditu zen eta Arantxa Astigarraga eta David Guiradok hirugarren postuari eutsi zioten. ||

■ ASTIGARRAGA-HERNANI FUTBOLA

Berdinketen asteburua, Hernani eta Mundarrorentzat

Garaipenik gabeko asteburua izan da; berdindu egin dute hiru talde nagusiek: Hernaniko neskek, Sestaoren aurka (1-1); mutilek Real Unionen aurka (1-1); eta Mundarrok Oiartzunen aurka (1-1).

PASA den asteburuan, Hernanik eta Mundarrok jokatutako partiduak berdinduan amaitu zuten, ia guztiak.

Hernaniko neskek, Sestaoren aurka jokatu zuten, eta 1-1 emaitzarekin amaitu zen partidua. Orain, 5. postuari eusten diote neska hernaniarrek, Euskal Ligan. Aurretik Erandioko taldea dago, eta atzetik

Goiherri.

Ohorezko mailan ere ez zen garaipenik egon, baina porrotik ere ez, (1-1) emaitzarekin amaitu zen Real Unionen aurka jokatu zuten partidua. Sailkapenean, Hernaniko Ohorezko mailako mutilek 7. postuan doaz, Eibar aurretik dutela eta Aretxabaleta atzetik.

Prefenteetan Hernaniko

mutilek, galdu egin zuten, Kostkas taldearen aurka (1-4) emaitzarekin, eta sailkapenean 13. postuari eusten diote

Mundarrok ere, ez zuen garaipenik lortu, 1-1 egin baitzuen Oiartzunen aurka, eta orain, 10. postuan doa, aurretik Axular taldea, puntu batera eta atzetik Santo Tomas Lizeoa puntu berdinekin. ||

■ ASTIGARRAGA-HERNANI PELOTA

«Ahazteko moduko» asteburua, Hernanik

Mundarroko Lizeaga anaiek beste partidu bat irabazi dute jubencil mailan.

PASA den aste makala osatu dute C.D. Hernaniko pelotariak. «Ahazteko moduko» kirol arduradunen esanetan. Torneo pribatuetan hiru partidu irabazi dira eta bi galdu, baina txapelketa ofizialetan lau partidu irabazi dira eta hamalau galdu. Guztira, asteburuan 16 partidu galdu dituzte Hernaniko klubeko pelotariak eta zazpi irabazi.

Emaitzarekin esanguratsuenak Oiartzabal eta Etxarri jubenilek eta Salaberria eta Insausti nagusiek lortu dituzte Gipuzkoako Txapelketan. Bi bikoteek txapelketako partidu guztiak irabazi dituzte eta aukera asko dituzte finalerdietara sailkatzeko.

Mundarroko Lizeaga anaiek ere asteburu borobila osatu dute eta hauek ere jubencil mailan 22-8 irabazi zuten Murumendiren kontra eta hauek ere finalerdiak oso gertu dituzte.

Oso garrantzitsua izan zen baita Urkizu eta Labaka seniorek lorturiko garaipena, tanto bakarrarengatik, Errenterian. Emaitza horrekin jaitzierako promozioa sahiestu dute eta beste urte betez lehengo mailan jokatuko dute.

Garaiar eta Alegria kadete-

en eta Arizmendi eta Altuna nagusien porrotak izan ziren emaitzarik txarrenak. Bi bikoteeri zaildu egin zaie azken fasea jokatzeo aukera.

Juanito Alvarez Torneoko finala galdu, Egian

Bestetik, albisterik okerrean Egiatik iritsi zen. Juanito Alvarez Torneoko finalean Ioritz Arrieta eta Markel Lizeaga bikote hernaniarrek 22-9 galdu zuen Urbietan II eta Irazustabarrenaren kontra.

Ez zuten bere egunik hobereza izan bi pelotari hernaniarrek eta aurkariak baino gutxiago izan ziren. Erraztasunak aprobetxatu zituzten txapelkunek.

Lizeagak ez zuen lortu Irazustabarrena menperatzea eta pelota gehiegi utzi zuen aurrelariaren aukeran. Intxurreko atzelariak kantxa asko kubritu zuen eta Urbietak errematatzeo aukera ia denak aprobetxatu zituen tantoak amaitzeko, Arrieta ezezagun baten aurrean. Ez zuen egunik hobereza izan aurrelariak.

Hernaniarren hirugarren finala izan da aurten Arrieta eta Lizeagak Egian jokatu dutena. ||



Hernaniko Ohorezko Mailakoek Zarautzen aurka jokatu zueneko argazkia.

■ HERNANI BOLEIBOLA

Euskadiko txapeldunordeari irabazi, Gasteizen

Partiduari buelta emanda, Udapa Lankide menderatu zuen, Hernaniko senior mutilen taldeak (2-3).

ASTEBURU bikaina izan da Hernaniko taldeentzako. Lau taldeek emaitza onak lortu dituzte; hiru garaipen eta porrot bat.

Senior mutilen partidua zaila izan zen Gasteizen, Udapa Lankide taldearen aurka. Azken finean, iaz Euskadiko txapeldunorde geratu ziren gasteiztarrek; eta hernaniarrek, berriz, talde berria dute. Eta hala ere, garaipen handia lortu zuten hernaniarrek (2-3), 2-1 emaitzari buelta emanda, gainera.

Partidua oso gogorra izan zen hasieratik, eta hernaniarrek oso serio jokatu zuten lehen jokoan, beti aurretik. Markagailuan hiru puntuko abantaila mantenduz, horrela iritsi ziren azken puntuetara, eta 23-25 irabaztea lortu zuten. Bigarren eta hirugarren jokoetan, etxe-koek zeukaten guztia eman zuten, eta hernaniarrek akats dezente egin zituzten, bereziki sakeak biltzerakoan. Gasteiztarrek ez zuten barkatu, eta 25-13

eta 25-15 irabazi zuten, 2-1 aurretik jarriz.

Hala ere, boleboleaz azken puntua egin arte ezin izaten da esan irabazita dagoenik partidua. Laugarren jokoan, hernaniarrek erabat gainditu zuten etxeko taldea, 9-25 nagusituta.

Horrela, bosgarren joko erabakiorrean, hernaniarrek segida eman zioten laugarren jokoa onari, eta etxekoek premia eta urduritasuna aprobetxatu, 10-15 irabazi zuten, partidua pol-

tsikoratuz (2-3).

Bi partidutan bi garaipen lortu dituzte hernaniarrek.

Infantil nesken garaipen bat eta kadeteetan bestea

Larunbat goizean, infantil nesken bi taldeek jokatu zuten. Hernani 1 taldeak Summa Aldapeta taldea erraz gainditu zuen (3-0), aurreko astean izandako urduritasunak uxatuz.

Hernani 2 taldeak, berriz, bere lehen partidua jokatu zuten,

eta hori nabaritu egin zen. Talde honetako jokalariek, boleboleaz jokatu zuten lehen partidua izan zuten, eta Fortuna txikik 0-3 gainditu zituen, baina ez zuten garaipena erraz lortu: 13-25, 18-25 eta 20-25.

Kadete nesketan, berriz, Hernani 2 taldeak Fortuna 2 taldearen etxean jokatu zuten, eta ez zion aukerarik eman etxeko taldeari 0-3 irabazita. Goiko postuetan egon nahi dutela erakutsi zuten, horrela. ■

ERRUGBIA

MUT. OHOREZKO MAILA	Hernani-Burgos	24-30
NSK. EUSKAL LIGA	Durango-Landarbaso	14-48
MUT. 23 URTEZ AZPIKOAK	Hernani-Burgos	70-7
KADETEAK (SUB18)	Rioja-Hernani Atletico	0-47
KADETEAK (SUB16)	Rioja-Hernani Atletico	66-12

FUTBOLA

NSK. EUSKAL LIGA	Sestao River-Hernani	1-1
MUT. OHOREZKO ERREG.	Real Union-Hernani	1-1
NSK. OHOREZKO ERREG.	Hernani-Lagun Onak	0-5
MUT. ERREG. PREFERENTIA	Oiarzun-Mundarro	1-1
MUT. ERREG. PREFERENTIA	Hernani-Kostkas	1-4
MUT. ERREG. 1GO MAILA	Mundarro-Lengokoak	4-1
MUT. SUB. LIGA NAZONALA	Hernani-Vasconia	0-2
MUT. SUB. OHOR. MAILA	Mundarro-Trinberpe	0-2
MUT. SUB. OHOR. MAILA	Vasconia-Hernani	2-1
MUT. SUB. 1GO MAILA	Oreeta-Mundarro	0-4
MUT. SUB. 1GO MAILA	Ostadar-Hernani	5-3
NSK. KAD. OHOR. MAILA	Intxaurdi-Hernani	5-1
MUT. KAD. OHOR. MAILA	Real Union-Mundarro	1-1
MUT. KAD. OHOR. MAILA	Hernani-Hondarribia	0-3
NSK. KAD. 1GO MAILA	Intxaurdi-Mundarro	0-2
MUT. KAD. 1GO MAILA	Mundarro-Sporting Herrera	3-1
MUT. KAD. 1GO MAILA	Hernani-Billabona	2-0
NSK. INF. OHOR. MAILA	Hernani-Touring	1-1
MUT. INF. OHOR. MAILA	Mundarro-Hondarribia	0-5
MUT. INF. OHOR. MAILA	Antiguoko-Hernani	4-1
MUT. INF. 1GO MAILA	Mundarro-Sanse	6-1
MUT. INF. TOKOAK	Mundarro-Igeltegi	8-0
MUT. INF. TOKOAK	Hernani-Umieta	4-0

SASKIBALOIA

MUT. GIPIUZK. 1GO MAILA	Oiarzun-Hernani	57-51
MUT. GIPIUZK. 1GO MAILA	Donosti Dolphins-Mundarro	71-60

MUT. GIPIUZK. 3. MAILA	Hernani-BKL	58-72
MUT. GIPIUZK. 3. MAILA	Ereñbide Irun-Mundarro	69-57
NSK. GIPIUZK. 2. MAILA	Mundarro-Tecnan	51-44
NSK. JUBENILAK	Askatuak-Mundarro	36-28
MUT. JUBENILAK	Iraurgi-Hernani	41-72
MUT. KADETEAK	Take-Hernani	49-53
MUT. KADETEAK	Mundarro 1-Antigua Lubem B	40-58
MUT. KADETEAK	Easo-Mundarro 2	25-62
MUT. INFANTILAK	Askatuak Gorri-Hernani	56-5
MUT. INFANTILAK	Ereñbide Irun-Mundarro	54-12

BOLEIBOLA

MUT. EUSKADIKO LIGA	Udapa-Hernani	2-3
NSK. KADETEAK	Fortuna 2-Hernani 2	0-3
NSK. INFANTILAK	Hernani 1-Summa Aldapeta	3-0
NSK. INFANTILAK	Hernani 2-Fortuna Txiki	0-3

ESKUBALOIA

NSK. JUBENILAK	Mundarro-Eibar	17-16
MUT. JUBENILAK	Hernani-Amenabar B	31-24
NSK. KADETEAK	Hernani-Leizaran Hoia	2-25
MUT. KADETEAK	Urola-Hernani	40-34
MUT. KADETEAK	Hernani-Elgoibar	32-18
NSK. INFANTILAK	Egia 1-Hernani	8-17
NSK. INFANTILAK	Udamegi-Mundarro	16-5
MUT. INFANTILAK	Ereñbide-Hernani	22-20
MUT. INFANTILAK	Hernani-Eibar	10-27

PALA

MUT. NAGUSIAK 2. MAILA	Loiolatarra 2/Ramos-Legarreta	19-25
NSK. NAGUSIAK 2. MAILA	Ataur/Araiztegi-Gutierrez	30-17
MUT. NAGUSIAK 3. MAILA	Gazteleku 1/Zurutza-Arandia	12-25
NSK. JUBENILAK	Barrenebea-Iriondo/Kerejeta-Macielor	30-25
NSK. JUBENILAK	Miner-Zugasti-Barrenebea/Intxurre 3	24-30

ESKU PELOTA

MUT. NAGUSIAK 1GO MAILA	Eple/Urkizu-Labaka	21-22
-------------------------	--------------------	-------

MUT. NAGUSIAK 2. MAILA	Loidi-Santxuz/Intza	21-22
MUT. NAGUSIAK 3. MAILA	Gazteleku/Arizmendi-Aituna	22-14
MUT. NAGUSIAK	Salaberria-Insauti/Eple	22-20
MUT. JUBENILAK 1GO MAILA	Lizeaga-Lizeaga/Murumendi	22-9
MUT. JUBENILAK 1GO MAILA	Bergara/Oiarzabal-Etxari	11-22
MUT. KADETEAK 2. MAILA	Tolosa/Garaiar-Alegria	22-14
MUT. KADETEAK 2. MAILA	Aide Zaharra/Aner Urdangarin-Asier Saralegi	22-8
MUT. INFANTILAK	Eñaut Otaño/Zumaia	0-2
MUT. INFANTILAK	Intxurre/Martin Alberdi	2-0
MUT. INFANTILAK	Oier Azpeitia/Zazpi Ituri	2-0
MUT. INFANTILAK	Unax Pascual/Behar Zana	1-2
MUT. INFANTILAK	Jon Urutia/Tolosa	0-2
MUT. INFANTILAK	Ianitz Gomotxategi/Gazteleku	0-2
MUT. INFANTILAK	Urko Moral/Aide Zaharra	1-2
MUT. INFANTILAK	Behar Zana/Markel Urdangarin	2-0
MUT. INFANTILAK	Zazpi Ituri/Aiur Elizazu	2-1
MUT. INFANTILAK	Iraitz Garcia/Eple	0-2
MUT. ALEBINA	Behar Zana/Amets Ebeberria	2-0
MUT. ALEBINA	Manex Alberdi/Behar Zana	0-2
MUT. ALEBINA	Joseba Arretxe/Kuku	0-2
MUT. ALEBINA	Oinatz Gaskon/Behar Zana	0-2
MUT. ALEBINA	Xabier Gomez/Txapagain	0-2
JOSETO ESKURRIATXAP	Garakoebear-Aiur Elizazu/Dima	18-1
JOSETO ESKURRIATXAP	Unax Urtzi-Labaka/Oberena	18-15
JOSETO ESKURRIATXAP	Apaolaza-Insauti II/Barañain	18-15
JOSETO ESKURRIATXAP	Oiarzabal-Mujika/Uitzama	4-18
EGIAKO TXAP	Arrieta-Lizeaga/Urbiete-Irazustabarrena	9-22

ERREMONTA

1GO PARTIDUA	Zubiri/Garces	30-17
2. PARTIDUA	Etxari-Barrenebea IV/Seguroa-Endika	40-37
3. PARTIDUA	Urtzi-Azpiroz/Uterga-Ebeberria III	34-40
4. PARTIDUA	Beñat-Larrañaga/Gokoebear V-Labaka	20-30

EGURALDIA
GAUR
Hodeitza aldatkorra izango da, eta ez da bazterten zaparrada bikiren bat egin dezakeenik. Eguneko tenperatura beroak pixka bat baxuagoak izango dira. **Min.15° / Max.22°**

BIHAR
Lainoak eta urdineak tartekatuko dira egunean zehar; gualdean, aldiz, fronte bat sartuko da eta euria ekariko du. Haizea ahul eta aldakor ibiliko da. Tenperatura, berdintsu: **Min.14° / Max.21°** (euskalmet)



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreo Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Castilla** Urbieta, 7 (Hernani) **943 552941** **Gauetz:** **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



GOIZUETA ESKU PILOTA

Asperekkin debutatuko du Iker Salaberriak datorren ostiralean

Tolosako Beotibar frontoian emanen dio hasiera goizuetarrak profesionaletako ibilbideari. Arratsaldeko 17:00etan izanen da.

OSTIRALEAN izanen du egun haundia Iker Salaberria esku pilotari goizuetarrak; orduan emanen dio hasiera profesional mailako ibilbideari.

Gipuzkoan hasiko du ibilbide hori; Tolosako Beotibar frontoian izanen da aurreneko partidua, arratsaldeko 17:00etan. Sarrerak dagoeneko salgai daude: www.aspepelota.eus.

Rezusta, bikote

Debuta, gainera, ez du bakarrik egingen, Beñat Rezusta bergararra izanen du alboan, bikote gisa. Bien artean, Elezkano II - Bikuña bikotea garaitzea izanen dute helburu. ||



Iker Salaberria pilotari goizuetarra.

HERNANI LEYRE TRAIL



Leyre Bertikalaren podiumera igozteko irudiak. Argazkia: Toño Miranda.

Hirugarren Senper, Leyre Trailen

00:57:56 denborarekin bukatu zuen 3,9 kilometroko ibilbidea.

IGANDEAN izan zen lehenengo aldiz Leyre Trail lasterketaren kilometro bertikalari dagokion txapelketa, eta bertan izan zen Maider Senper hernaniarra. Podiumera igozteko irudiak, gainera, emakumezkoetan hirugarren eginda 00:57:56 denborarekin.

Yesatik Arangoitira

3,9 kilometroko ibilbidea egin

zuen, 900 metroko desnibel positiboarekin. Yesan hasi eta Arangoitiko gailurrera arte egin zuten (1356 metrora), parte hartu zuten 150 korrikalarik, tartean Senperrek. ||

ASTIGARRAGA ESKUBALOIA



Ederki aritu ziren neska jubenilak etxean, Astigarragako kiroldegian.

Ondo borrokatutako garaipena, neskek

Denboraldiko bosgarren jardunaldia izan zuten larunbatean Astigarragako Mundaroko eskubaloiko neska jubenilek, eta beste behin, garaipena eskuratu zuten etxean. Eibar hartu zuten, eta puntu batengatik irabazi zioten, 17-16. Ondo borrokatutako partidua, Ligako laugarren postuan kokatzen lagundu diena. Zubia dela-eta, atsedena izango dute hurrengo asteaburuan. ||

HERNANI WATERPOLO

Beste garaipen bat, seniorrek

Kanpoan jokatu zuten Hernaniko Waterpolo taldeko seniorrek asteburu partidua. Getxo B-ren kontra lehiatu zituzten indarrak, baita irabazi ere. 9-10 gailentzea lortu zuten, partidu orekatuan. ||

HERNANI ERRUGBIA

Berri onak, Euskal Ligako neskek

Aripasuetan jokatu zuten Hernaniko nesken Landarbaso taldeak, Euskal Ligako bosgarren partidua, Durango taldearen kontra, eta irabazi egin zuten. Aldea atera zioten bizkaitarrei, 14-48 emaitzarekin. ||

IRAGARKI MERKEAK

Gutxi erabilitako konpresore trifasikoa salgai. 500 €. Deitu: 688 651 438

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Saillburuordetzak) diruz lagundua

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA